

## **HODEI URRATUAK**

Unai Oruesagasti

*Azpeitia*

Zeruko hodei urratuen negarrak  
esnatu gaitu;  
zer egin ez dakigula,  
munduaren mihiseari so jarri gara,  
zu eta ni, elkarri begira.  
Gaueko iluntasun infinituak  
ezkutatu ditu  
gure aurpegi lotsatiak.  
Kandela baten argizaria bezala  
urtu da gaueko iluntasuna,  
eta eskutik harrapatu du goizeko epeltasuna.  
Poliki-poliki gauaren patuan idatzitako hitzak  
aireratu dira zerura;  
eta orain hemen gaude,  
zeruko izar galduen artean islatzen den  
siluetari begira.